

# Argitalpenak

## Diskoteka

IKER BARANDIARAN

### Esportatzeko moduko thrash-metal indartsua

Azpeitiko talde honek –azkoitiar bat ere bada tartean– oihartzun handia lortu du Euskal Herrian eta baita atzerrian ere. Thrash-metala egiten dute, gaur egungo gutxi bezala, eta ingelesez abesten dute, salbuespenak salbuespen. Anihilator, Slayer, Metallicaren disko zaharrak –onenak– eta Suicidal Tendencies-en gitarrek ekar-tzen dituzte gogora. Badira kanta zakar eta bortitzak, baita ilunagoak edota melodikoagoak ere, eta iraganeko kutsu heavya ere antzematen zaie batzuetan. Lanetik lanera gero eta emaitza onagoak lortu dituzte. Aitor Ariñorekin Lorentzo Recordsen grabatutako lan honek ez dauka atzerrikoen inbi-diarik. Hitzei dagokionez, munduaren akabera heltzera doala dirudi, apokaliptiko eta ezkor samarrak dira-eta, elementu fantastiko eta beldurgarriak josiak.



#### Dimension of pain

Legen Beltza

MAUSOLEUM

Iraupena: 54'03"  
16,30 euro

JOSEBA AZKUE - LEGEN BELTZA

### «Gure artean euskaraz egiten dugu, baina ingelesez abestuta diskoetxeek kasu gehiago egiten digutela konturatu ginen»

Belgikako diskoetxe ezagun batekin kaleratu duzue diskoa, eta nazioartean izena lortu duzue...

Hasieran merkatuan sartzea zen helburua, edozein diskoetxerekin, eta hainbatek jarrera eskasa izan zuten gurekin. European gure musika zabaldu nahi dugu. AEBetan eta Alemanian sartzen gailtza, baina oso zaila da.

Batzuek thrasha 90ko hamarkadako estilotzat baztertzen dute...

Bai, thrasha gainbehera joan zela eta gurea atzera egitea dela diote. Guk ez dugu atzera begiratzen, hori da irteten zaiguna.

Mundu ilunak erakartzen zaituzte edo irudi bat landu duzue?

Abeslariak zonbiak eta goreak oso gustuko ditu, eta dibertimendu moduan erabiltzen ditugu. Hitzetan ez dugu politika sartzen; gai orokorrak lantzen ditugu, nahiz eta Bushen eta gerraren kontra idatzi.

Iragan heavy eta *sutagarreroa* daukazuela esango nuke...

Su Ta Gar betidanik dugu gustuko. Euskal Herrian erreferentzia dira. Hala ere, taldekideok musikazale amorratuak gara, eta denetatik entzuten dugu.

Nola bururatu zitzaizuen *War of wars* opera egitea?

Kantua egiterakoan, beste abeslariari laguntza eskatzea erabaki genuen. Gonbidapena luzatu eta abeslari



eta gitarra jotzaile askok kasu egin ziguten. Bakoitzarentzako pertsonaia sortu, eta bi kantu idatzi behar izan genituen guztiak sartzeko. Musikari bakoitzak bere zatia grabatu eta bidali zigun musutruk.

**Zer dela eta abesten duzue ingelesez?**

Lehenengo diskoa euskaraz egin genuen. Bigarrena prestatzean *demoak* diskoetxeetara bidali genituen; baina ez genuen erantzun onik jaso. Hala, kanpora saiakera egitea erabaki genuen, eta kantu batzuk ingelesez idatzi genituen. Espainiatik eta beste herrialde batzuetatik harrera ona izan genuen. Hortaz, abesti ia guztiak ingelesez idatzen hasi ginen. Ez zen aurrez pentsatua izan, are gehiago, taldekide guztiok euskaldunak gara, eta euskaraz egiten dugu beti.